

Martutene


# Futbol zelaiarekin bueltaka

**Amaia Etxeberria** (943 21 09 37)

**m**artuteneko futbol zelaiak makina bat liskar sortu du uda honetan. Martutene Kirol Elkarteak zelaia erabiltzeko orduan lehentasuna izan nahi du. Besteak beste, beren entrenamendu eta partiduetarako ordutegiak ezartzeko askatasuna eskatzen du. Hala ere, zelaia eraiki zenetik horren kudeaketa futbol federazioaren esku egon da.

Uztailean, Jose Yaben auzo elkarteke buruak argi eta garbi azaldu zuen ez duela inolaz ere onartuko zelaia federazioaren esku uztea. Futbol federazioaren eta zelaia erabiltzen duten taldeen arteko tirabira hau izan da liskarraren iturburu.

Hori guztia dela eta, Jose Yaben Kirol Patronatuko ordezkariarekin, Federazioko zuzendariarekin, hainbat zinegotzirekin eta alkatearekin elkartu eta arazoaren berri eman zien. Ez zuen, baina, gustuko erantzunik izan.



Joan den denboraldian Martutene Kirol Elkarteke futbol taldeek, Vasconiak, Amara Berrik eta Danak-ek erabili zuten zelaia.

*“Ez ziguten kasurik egin. Horrexegatik aspaldi egindako mehatxua bete genuen, zelaia itxi genuen egun batez”, adierazi digu Jose Yabenek.*

## Udaletzekoen erantzunaren zain

Itxialdia abuztuaren leian egin zen. Itxialdia zela eta, erregional mailan ari den Vasconja taldeak ez zuen entrenatzerik izan. Gauzak horrela, Martutene Kirol Elkartearen eta Amara Zaharreko futbol taldearen artean desadostasunak egon ziren.

Hala ere, hurrengo entrenaldietan Vasconiakoek zelaia zabalik aurkitu zuten. *“Behin behineko neurri bat izan zen, uda-letxean presio pixka bat egiteko”, adierazi digu Yabenek.*

Martuteneko zelaia toki ezberdinetako futbol taldeek erabiltzen dute: Amara Berri, Loiola, Amara Zaharra, Martutene... Iazko denboraldian Martuteneko Kirol Elkarteke futbol taldeak, Vasconiak, Amara Berrik eta Danak-ek entrenatu zuten bertan.

Auzia dela eta, erabiltzai-

Jose Yaben:

**“Beharrezkoa bada, berriz ere, zelaia itxiko dugu”**

leen artean iritzi ezberdinak sortu dira. Batzuek begi onez ikusten dute zelaiaren kudeaketa auzotarren esku uztea. Beste batzuek, aldiz, zelaia federazioak kudeatu behar duela eta udalarena izan behar duela uste dute.

Iritziak iritzi, auzotarrek tinko eutsi diote bereari. *“Ez dugu jarraz aldatuko, eta beharrezkoa bada, berriro ere zelaia itxiko dugu. Horretarako prest gaude”,* esan digu Yabenek.

Egun, arazoa Alfonso Benito Kirol Patronatuko arduradunaren esku dago. Antza denez, datorren astean jasoko dute auzotarrek Kirol Patronatuko kideen erantzuna.



**OIHALAK, KONPONKETAK, JANTZIGINTZA**

Vitoria-Gasteiz 4,  
( Antiguako anbulategiaren atzean )  
20008-Donostia  
Tel.: 943-31 50 65



Marino Tabuyo, 6  
Tel.: (943) 32 15 94  
DONOSTIA

Laskorain, 7  
Tel.: (943) 65 49 16  
Faxa: (943) 65 17 27  
TOLOSA



Enkarguz  
egindako  
platerak

Mari kalea 5, beheka (Kaiaren gainean) • Tel.: (943) 431540